

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

2087

EBAZPENA, 2019ko abenduaren 30ekoa, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariarena, 2019ko azaroaren 6ko Aginduen babesean, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarenean, 2019ko ekitaldian eskatutako laguntzak eman eta ukatzekoa. Agindu horren bidez, enpresa ardogileen kanpo-sustapenerako 2019ko ekitaldirako laguntza-deialdia egiten da, merkataritza-misio alderantzikoentzako dirulaguntzen bitartez, «Lehiatu Ardoa Programa».

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2019ko azaroaren 6ko Aginduen babesean dirulaguntzak jasotzeko hainbat eskabide aurkeztu dira. Agindu horren bidez, enpresa ardogileen kanpo-sustapenerako 2019ko ekitaldirako laguntza-deialdia egiten da, merkataritza-misio alderantzizkoentzako dirulaguntzen bitartez, «Lehiatu Ardoa Programa». Aurkeztutako eskabideen zerrendak ebazpen honetako I. eta II. eranskinetan daude, bai eta eskabideekin batera aurkeztutako agiriak ere. Aipaturiko eranskin horietan, eskabide bakoitzari dagokion espediente-zenbakia azaltzen da.

2019ko azaroaren 29ko Ebazpenak, Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendariarenak, izendatutako Balorazio Batzordeak, deialdi-aginduen hamaikagarren puntuak ezarritakoaren arabera sorturikoak, ebazpen-proposamena egin du.

Balorazio Batzordeak, bere ebazpen-proposamena egiteko, kontuan hartu ditu Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuak 2019ko azaroaren 6ko Aginduen bidez ezarri zituen balorazioa eta hautaketa egiteko irizpide objektiboak.

Aurreko guztia kontuan hartuta, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Ebazpen honen I. eranskinetako zerrendan azaltzen diren eskatzaileei minimis dirulaguntzak ematea Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2019ko azaroaren 6ko Aginduan jasotako enpresa ardogileen kanpo-sustapenerako, merkataritza-misio alderantzizkoentzako dirulaguntzen bitartez. Aipatutako eranskinetan zehaztuta daude dirulaguntza jaso dezaketen gastuen zenbatekoak eta zuzeneko laguntza moduan emandako laguntzen zenbatekoak. Dirulaguntza 4.285,24 eurokoa da guztira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen kontura finantzatuko da.

Gastua gauzatzeko epea 2019ko aurrekontu-ekitaldia izango da. Dirulaguntza enpresak aurkeztutako sustapen-ekintzen eta 2019ko azaroaren 6ko Aginduak ezarritakoaren arabera ordainduko da.

Sustapen-gastua ezarritako epearen barruan gauzatzen ez bada edo epe horretan sustapen-gastua egin dela egiaztatzen duten agiriak aurkeztzen ez badira, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdutzat emango da eta, hala badagokio, deialdi-aginduen hamabosgarren puntuan aurreikusitako itzultze-prozedurari ekingo zaio.

Bigarrena.— Ebazpen honen II. eranskinetako zerrendan azaltzen diren eskatzaileei dirulaguntza-rik ez ematea Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2019ko azaroaren 6ko

Aginduan jasotako kanpo-sustapenerako, merkataritza-misio alderantzizkoentzako dirulaguntzen bitartez.

Hirugarrena.— Ebazpen honen aurka, ez baitu administrazio-bidea amaitzen, interesdunak gorako errekurtsioa aurkeztu ahal izango dio Nekazaritza, Arrantza eta Elikagai Politikako sailburuordeari, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 121. eta 122. artikuluetan zehaztutakoarekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abenduaren 30a.

Elikagaien Kalitate eta Industriako zuzendaria,
PELI MANTEROLA ARTETA.

I. ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AURREKONTU OROKORREN KONTURA EMANDAKO
DIRULAGUNTZAK

	Espediente zk.	Baltzuaren izena	IFK/NAN	Laguntza jaso dezakeena (€)	2019 (€)
1	00001-ARP2019-42	Zuazo Gaston Bodegas y Viñedos, S.L.	B01563683	2.484,08	993,63
2	00003-ARP2019-42	Bodegas Valdelana, S.L.	B01303429	6.120,34	2.448,14
3	00004-ARP2019-42	Bodegas Eguren, S.A.	A01016930	2.108,68	843,47

II. ERANSKINA

UKATUTAKO ESKABIDEAK

	Espediente zk.	Baltzuaren izena	IFK/NAN	Ukatzeko arrazoia
1	00002-ARP2019-42	Amesguren, S.L.	B20821831	Ez ditu baldintzak betetzen